



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko ekainaren 19a

69. ZK.

### A U R K I B I D E A

F SAILA:

**Galderak:**

- Galdera, Euskarabideak duen funtzionarioentzako euskaltegiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, funtzionarioek Euskarabidean euskaldundu ahal izateko bete behar dituzten baldintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Liburutegi Sarearen barruko lan-mugikortasunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Aralar mendiko guardetxeari dagokionez aurreikusitako jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Estatu Batuetan Nafarroako produktuak sustatzeko ekitaldirik ez egitearen ondorioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, Mendillorriko eta Antsoingo institutuak handitzeko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, Alizko urtegiaren traineruen jardunaldi bat egitearen berri ba ote den jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, 2012-2013 ikasturterako irakasleen plantillei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Bankiari eginiko ekarpenetik Nafarroari egotzi beharreko kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, osasun-garraioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, joan den ekainaren 2an krisian sartu ginenetik eginiko ordainketa, abonua eta jarduketa administratiboari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, ETBko kanalak lurreko telebista digitalaren bidez hartzea normalizatzeko eta ahalbidetzeko kudeaketa-lanei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Iruñean sindikatuak deitutako zenbait mobilizazio egin ziren egunetan helikoptero bat erabili izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxako estatutu-aldaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, jakitekoa zer dela-eta ez den egin Nafarroako Kutxaren ikuskapenik. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, osasun-garraioaren arloko zerbitzuko langileek titulazioa lan esperientziaren bidez eskuratzeko egiaztatze-prozesuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).

- Galdera, Nafarroako Kutzaren estatutuak aldatze aldera Ekonomia Ministeriora igorritako testuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, ospitaleguneko sukaldeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Jiménez Alli lehen lehendakariorde kargutik kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, PFEZaren egungo tarifa-tarteetako bakoitzean, 2012an izandako dirubilketa garbiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, 2012an PFEZaren tarifaren azken hiru tarteetako dirubilketa garbiari buruz, baldin eta tasa ehuneko 5,3 eta 3 handiagoa izan balitz. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroak dohainik hartzen zaitu” izeneko turismo kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, argitalpenen gaineko politikari dagokionez lortu nahi diren helburuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- Galdera, “Tokiko telebistako Iruñeko barrutia” izenekoak hartzen duen lurralde-eremuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, Euskarabideak duen funtzionarioentzako euskaltegiari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du Euskarabideak duen funtzionarioentzako euskaltegiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 25eko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak funtzionarioen euskaltegi ikasketei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00087), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, Hezkuntza Departamentuari atxikitako Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuak egindako txostenean oinarriturik:

Euskarabideak euskara irakasteko erabiltzen dituen modalitateen gida didaktikoetan aipatzen denez, ratioa betetzea izan da 2011/12 ikasturtean taldeak osatzeko gutxieneko baldintza (taldea sortzeko gutxieneko ikasle kopurua izatea).

- Ikastaro hedatuak eta trinkoak: 12 ikasle gutxienez, eta 20 gehienez. Ikastaroa abian dela ikasle kopurua 6raino jaitsiz gero, taldea desagertu egingo da. Taldea desagertuz gero, autoikaskuntzako modalitatean jarraitzeko aukera ematen zaie ikasleei.

- Autoikaskuntzako modalitatea: eskari guztiak onartzen dira. Mintza-praktikako taldeak sortzeko 8 ikasle behar dira, gutxienez, eta 12, gehienez.

- Mintza-praktikako taldeen modalitatea: martxoan eta ekainean, gutxienez 5 ikasle eta gehie-

nez 12 ikasle behar dira mintza-praktikako taldeak sortzeko.

- Murgiltze-modalitatea: abuztuan, A2 mailatik aurrera, gutxienez 12 ikasle eta gehienez 20 ikasle behar dira taldea osatzeko.

- EGA modalitatea: martxoan, ikastaro hedatu moduan eskaintzen da EGA maila, eta gutxienez 12 ikasle eta gehienez 20 behar dira taldea osatzeko.

- EGA modalitatea: abuztuan, ikastaro trinko moduan eskaintzen da EGA maila, eta gutxienez 12 ikasle eta gehienez 20 behar dira taldea osatzeko.

Hala ere, oro har ezarritako ratioak malgutasunez hartzen dira, maila bakoitzerako jasotako eskari guztiak eta Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuko langile teknikarien aukerak aztertuta, ikasle berri ahalik eta gehien hartzeari begira.

Ikasleek izena ematen dutenetik taldea osatzen den arte, baliabideak ikasleen intereseko modalitate eta ordutegietara egokitzeko ahalegina egiten da, hainbat aldagai kontuan hartzen dituen prozesu landu baten bidez, eta prozesu horren bukaeran erabakitzen dira taldeak.

Taldeak sortzeko ratio bat ezartzen den modu berean, eskari guztiak eta finkatutako gutxieneko kopuruak bete ez arren taldeak sortzeko aukera guztiak aztertzen dira irailean. 2011/12 ikasturtean zehar zenbait talde osatu dira finkatutako gutxieneko ratiotik beherako ikasle kopuruekin, talde horien maila kontuan hartuta.

Taldeak osatuta daudela ere, zabalik uzten da prestakuntza-aldia hasi aurretik ikasle gehiago onartzeko bidea, betiere, talde bakoitzari dagokion gutxieneko ikasle kopurua gainditu gabe.

Antolaketa didaktikoa:

Abuztuaren 24ko Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituen 133/2011 Foru Dekretuaren IV. kapituluak dioenez, Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzuak bi atal atxiki ditu. Horietako batek, Euskararen Didaktikako Atalak, Nafarroako administrazio publikoetako langileei euskara irakasteari loturiko eginkizunak betetzen ditu:

- a) Euskara helduei irakastea.
- b) Euskara helduei irakasteko laguntzak kudeatzea.
- c) Euskara helduei irakasteko curriculumeko edukiak prestatzea eta gaurkotzea.
- d) Euskara helduei irakasteko behar diren material didaktikoak prestatzea eta hedatzea.
- e) Nafarroako Foru Komunitatetik kanpoko entitateekin lankidetzan aritzea, euskararen erabilera eta irakaskuntza sustatzeko.
- f) Euskararen Liburutegi Espezializatua kudeatzea eta euskarazko funts bibliografikoak eta ikusentzunezkoak eskuratzea, biltzea eta jendaurrean jartzea.
- g) Indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkieten gainerako eginkizunak, eta helburuak egoki betetzeko bere kudeaketa esparruan agintzen zaizkion guztiak.

Atal horrek euskarako erdi mailako 14 teknikari ditu zuzeneko prestakuntzarako.

Teknikari horien ordutegia urtarrilaren 8ko 3/2010 Foru Aginduak arautzen du, eta lan-ordutegi horren barruan, zuzeneko aurrez aurreko prestakuntza (eskolak) emateaz gainera, eskolak prestatu, programazioak landu, materialak sortu eta koordinazio-bilerak egiten dituzte, besteak beste.

Era berean, teknikari batek didaktikako koordinatzaile modura dihardu. Teknikari horrek lanaldia-ren erdia ematen du ardura horri dagozkion honako eginkizun hauek betetzen:

- Programen eta jardueren koordinazioa (curriculum; teknologia, pedagogia eta didaktika arloetako eguneratzea...).
- Antolaketaren eta ebaluazioaren jarraipena egitea, finkatutako irizpideak aintzat hartuta.
- Jardueraren plana eta txostena osatzen parte hartzea.
- Didaktikako lan-taldeak sortzea eta koordinatzea.
- Programazioen jarraipena egitea.
- Maila-azterketak antolatzea.
- Ikasleen jarraipena egitea: bajak, altak, faltak...
- Ordezkapen-sistema antolatzea.
- Behar diren materialen jarraipena egitea.

Azkenik, aipatutako foru-aginduak ezarritako moduan, prestakuntza-lanetan aritzen diren teknikariek aurrez aurrekoak ez diren lanordu batzuk dituzte, zerbitzu horren prestakuntza-lanen eta ordutegien berezitasuna dela-eta.

NAPI erakunde autonomoaren eta Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren egitura ez dira berdinak, eta ez dituzte eginkizun berak ere, gaur egun.

Galdera Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuari badagokio, 133/2011 Foru Dekretuak dio Institutuak zerbitzu-zuzendari bat eta hiru atalburu dituela, eta unitate bakoitzaren eginkizunak bereizten ditu; horren arabera onartu zen egitura hori.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012 ekainaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, funtzionarioek Euskarabidean euskaldundu ahal izateko bete behar dituzten baldintzei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du funtzionarioek Euskarabidean euskaldundu ahal izateko bete behar dituzten baldintzei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 25eko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak funtzionarioek euskarako eskolak hartzeko bete beharreko baldintzei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00088), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuak emandako txostenean oinarriturik:

Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuak NAPI in izena ematen duten ikasleak hartzen ditu, eta NAPI in izena emateko honako baldintza hau besterik ez dute bete behar: Foru Komunitateko administrazio bateko langile publikoa izatea (kontratupekoa edo finkoa).

Hortaz, honako erakunde hauen zerbitzuko langile publiko guztiek parte har dezakete:

- Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa.
- Nafarroako toki entitateak.
- Estatuko Administrazio Orokorra, Nafarroan.
- Nafarroako Gobernuaren %50etik gorako partaidetza duten enpresa eta sozietate publikoak.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa (administrazio eta zerbitzuetako langileak)
- Beste erakunde publiko batzuk (Kontuen Ganbera, Parlamentua, etab.).

Ez dute prestakuntza hori jasoko Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuari atxikitako unibertsitateaz kanpoko irakasleek; izan ere, irakasle horiek beste prestakuntza-plan bat dute, Nafarroako Prestakuntza Kontseiluan urtero pres-

tatu eta onartzen dena, sindikatu-erakundeek ordezkariak dutela.

Nolanahi ere, irakasleek udako euskara-ikastaroetan parte har dezakete; horrela, jarduera horien errentagarritasuna areagotzen da eta irakasleen prestakuntza-eskaintza zabalitzen da, berez beren planean aurreikusita ez dauden jarduera batzuk egiteko aukera emanez.

Irizpideak lehen aipatutako 195/1993 Foru Dekretuak ezarritakotik eratortzen dira.

Departamentu eta erakunde autonomo bakoitzean ematen dira baimenak, zerbitzuak erabilgarri dituen baliabideak eta beharrak kontuan hartuta (beraz, aldaketak gerta daitezke urte batetik bestera), eta lehen aipatutako arauetan ezarritako ordainak dagozkie.

Horrez gainera, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura diharduten langileek ordainik gabe parte har dezakete prestakuntza-jardueretan, beren lan-ordutegitik kanpo.

Bestalde, departamentu jakin batzuetan txandakako ordutegia duten langileei prestakuntza-jarduerak ordu libreetan egiteko bidea errazten zaie, asistentziaren arabera ordainarekin.

Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuak 2.773 baimen kudeatu zituen 2002 eta 2011 bitartean.

Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuan eskolak hartzeko baimena duten ikasleek estatistika ez dator bat departamentu edo erakunde autonomo bakoitzak emandako baimenekin, baimena lortzen duten funtzionarioek aukera dutelako Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuan ikasketak egiteko nahiz beste prestakuntza-eskaintza batzuk aukeratzeko, gero ikusiko dugunez.

Baimendu gabeko eskariei dagokienez, jakina, horiek ez ditu kudeatzen NAPIk edo Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuak.

Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuan euskara ikasteko izena ematen duten funtzionarioak

Nafarroan euskara ikasteko eskaintza NAPI/Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuak egiten duena baino zabalagoa da; izan ere, horiez gainera, badira ekimen pribatuko eskalategiak,

Iruñeko HEO, Tuterako HEO, Zubiarte euskaltegi publikoa nahiz akademia pribatuak.

195/1993 Foru Dekretuaren arabera, euskara ikasteko baimena duten funtzionarioek eskubidea dute eskaintza horietako edozein aukeratu eta horietan izena emateko.

Talderik ez dagoela-eta baimendu gabe gelditzen diren eskariei dagokienez, Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuan eskaintzen diren beste modalitate batzuk (autoikaskuntzakoak, hedatuak nahiz trinkoak) eskaini ohi zaizkie ikaslegaiei, euskara ikasteko asmoari eutsi diezaioten, eta, azkenean, eskaintza horiek ere eskatzailearen interesei

egokitzen ez bazaizkie, Zubiarte euskaltegi publikora joateko aukera ematen zaie. Kasu horretan, Institutuaren kontura izaten dira ikasleek ordaindu beharreko gastuak.

Langile publiko askok erabakitzen dute Prestakuntza Planean izena eman eta Euskarabidea/Euskararen Nafar Institutuan eskolak hartzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012 ekainaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## Galdera, Liburutegi Sarearen barruko lan-mugikortasunari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Patxi Leuza García jaunak galdera egin du Liburutegi Sarearen barruko lan-mugikortasunari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko maiatzaren 25eko 52. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru-parlamentari Patxi Leuza García jaunak Liburutegietako langileen mugikortasunari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokienez (PES-00083), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuko kontseilariak:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko langile funtzionarioen eta, horien artean, Liburutegietako langileen borondatezko mugikortasuna Nafarroako administrazio publikoko lanpostuen hornidura-araudiak araututako lekualdatze-lehiaketen bitartez bideratzen da.

Araudi horren 8. artikuluen 3. atalak arautzen du, zehazki, lekualdatze-lehiaketetan zer langile funtzionarioek parte har dezaket. Ildo horretatik, zehazten du zuzendaritza nagusi batetik bestera aldatzeko baliu daitezkeela lekualdatze-lehiaketak.

Langile bat zuzendaritza nagusi jakin batekoa izanik, adibidez, liburutegietakoa, zuzendaritza bereko beste udalerrri bateko plazetara ere alda daiteke, baita udalerrri bereko beste plaza batera ere, baldin eta zentro bereko plazak ez badira. Ondorio horietarako, honako hauek jotzen ditu araudiak asistentzia-zentrotzat: Mendekotasunaren Nafarroako Agentzia, Hezkuntza Departamentuko ikastetxeak, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren agentziak eta Kirol Institutuaren eta Gazteria Institutuaren zentroak.

Aipatutako araudia kontuan hartuta, beraz, liburutegietako langile funtzionarioek ez daukate lekualdatze-lehiaketen bidez udalerrri bereko beste liburutegi batean plaza lortzerik.

2. Sindikatu-ordezkaritzak araudi hori aldatzea eskatu du, Iruñeko liburutegietako langileei begira, langile horiek aukera izan dezaten lekualdatze-lehiaketen bidez udalerrri bereko beste liburutegi batean plaza eskuratzeko, alegia, Iruñeko beste liburutegi batean.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiak dagoeneko adierazi die sindikatu-ordezkariei mugikortasun hori baimentzeko borondatea duela, eta, hala, hurrengo lekualdatze-lehiaketa egin aurretik araudian egin beharreko aldaketak egiteko konpromisoa hartu du.

Iruñean, 2012ko ekainean

Lehendakaritza, Administrazio Publiko eta Barne Departamentuko kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Aralar mendiko guardetxeari dagokionez aurreikusitako jardueri buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Aralar mendiko guardetxeari dagokionez aurreikusitako jardueri buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 1eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Aralarko Guardetxeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12-/PES-00091), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilariak:

• Zer jarduera dauka aurreikusita Nafarroako Gobernuak, Aralarko Guardetxeari buruz?

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuak Guardetxea berreraikitzeke asmoa du, Aralarko baso-ondareari atxikitako baso-azpiegitura gisa, Aralar mendiaren jabe eta kudeatzaile den heinean.

Nolanahi ere, aurrekontua murriztera behar-tzen gaituzten gaur egungo baldintzetan, ezin ezar daiteke berreraikuntza horretarako egutegi zehatzik.

• Jardueraren bat aurreikusita badu, zertan datza?

Departamentuak eraikuntza-proiektu bat dauka, eraikuntza berrirako nagusiki bertako jatorrizko egurra erabiltzea aurreikusten duena. Proiektu horren bidez, baso-eremuaren kudeaketarako euskarri bat sortu nahi da, eta, aldi berean, Departamentu honek basoko produktuen erabilera, egurrarena, bereziki, sustatzeko estrategiaren alde apustu egiten duela erakutsi nahi da, adibide baten bidez.

• Aurrekontuko zer partidaren kontura egingo dira, egitekotan, jarduera horiek?

1. puntuan adierazi bezala, une honetan ez dago gai honi buruzko aurreikuspenik aurrekontuan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 21ean

Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumeneko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Estatu Batuetan Nafarroako produktuak sustatzeko ekitaldirik ez egitearen ondorioei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Estatu Batuetan Nafarroako produktuak sustatzeko ekitaldirik ez egitearen ondorioei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 1eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Estatu Batuetan Nafarroako produktuak sustatzeari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00093), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuo Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Estatu Batuetan Nafarroa sustatzeari begira 2005. eta 2011. urteen artean egin ziren merkataritza-misioak Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganberak antolatu zituen, Sodenaren eta Nafarroako Ardoaren Jatorri Izendapenaren Kontseilu Arautzailearen lankidetzarekin; ekimen haien

xedea zen Foru Komunitatearen irudia, energia berriztagarrien arloko politika, kultura, ardoa eta elikagaiak sustatzea.

Nafarroako Foru Komunitateak dituen zailtasunak eta misio horiek antolatzen ziharduten erakundeek izandako aurrekontu-murrizketak direla-eta (bereziki, 2012an), misio horiek bertan behera utzi behar izan ziren, baita erakunde-publizitatearekin loturiko ekimenak eta beste sustapen-ekimen batzuk ere.

Estatu Batuetako Nafarroaren Sustapen Astea bertan behera utzi behar izanaren ondorioz, herrialde hartan ez dute orain arteko mailako ezagutza izango Komunitateako nekazaritza-elikadurako produktuei, ingurumen-politikei eta kulturari buruz.

Estatu Batuetan azken zazpi urteetan arrakastaz lorturiko helburuei dagokienez, ekimena bertan behera uzteak ez du zertan eraginik izan orain arteko fruituetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainean

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia



## Galdera, Mendillorriko eta Antsoingo institutuak handitzeko obrei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du Mendillorriko eta Antsoingo institutuak handitzeko obrei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 1eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak Mendillorri DBHIko eta Antsoingo obrak direla-eta idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00090), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Azpiegituren Zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

1. Mendillorriko DBHIk DBHko lehen zikloko 11 lerro ezartzeko tokia izango du (22 talde), eta bi fasetan egin dira eraikuntza-lanak. 1. fasearen lizitazioaren prezioa 3.200.000 eurokoa izan zen, eta esleipenaren prezioa, 2.407.977,64 eurokoa. Obrak egikaritzeko 5 hilabete behar izan ziren.

1. fasean, honako espazio hauek eraiki dira:

1. FASEA	UNIT. KOP.
DBHko GELAK	11
BIKOIZKETAK	8
LIBURUTEGIA	1
KOMUNAK	4
IRAKASLEEN KOMUNAK	2
MUSIKAKO GELA	1
INFORMATIKAKO GELA	2
LABORATEGIA	1
TAILERRA ETA TEKNOLOGIAKO GELA	1
GIMNASIOA - ALDAGELAK - BILTEGIA	1
IRAKASLE GELA	1
ZUZENDARITZA BULEGOA	1

IKASKETABURUAREN BULEGOA	1
IDAZKARITZA/ORIENTAZIOA	2
ATEZAINZTA. FOTOKOPIAK	1
GARBIKETAKO GELA	2
INSTALAZIOEN GELAK	1
BILTEGIA	1
BILERA GELA	1
TUTORETZA	1
GELA SANITARIOA	1
TAILERRA	1
ESKAILERAK	1
ZIRKULAZIOAK	1
KANPOKO KIROL PISTA ESTALIA	1
KANPOKO KIROL PISTA	1

2. 752.384,76 euroko gastua aurreikusi da institutuaren 2. faseko lanetarako, Mendillorriko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako, eta honako espazio hauek izango ditu:

2. FASEA	UNIT. KOP.
DBHKO GELAK	11
BIKOIZKETAK	7
KOMUNAK	4
PLASTIKAKO GELA	1
TAILERRA ETA TEKNOLOGIAKO GELA	1
IRAKASLE GELA	1
IRAKASLEEN KOMUNAK	1
GURASO GELA	2
GARBIKETA	1
ESKAILERAK	2
ZIRKULAZIOAK	1

3. Odol-emaleen kalean, Iruñeko 6. industrialdeko 2009 eta 2016 orubeetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 6 lerro izango ditu proiektatutako institutu berriak. Lursailak aukera ematen du, gainera, Batxilergoko 4 lerro gehiago ezartzeko.

DBHIko ikastetxea (Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 6 lerro) 2 fasetan eraikiko da

**1. fasea:**

- DBHko 9 unitate, gimnasioa eta aldagelak, eta kirol-pista estalia
- Azalera eraikia: 2.922 m<sup>2</sup>
- 2013/2014 ikasturtearen hasierarako aurreikusita dago lanen amaiera
- Aurrekontua: 2.710.000 euro

1. FASEA	UNIT. KOP.
GELAK	9
LIBURUTEGIA	1
BIKOIZKETAK	4
KOMUNAK	4
IRAKASLEEN KOMUNAK	1
MUSIKAKO GELA	1
INFORMATIKAKO GELA	1
ZIENTZIETAKO LABORATEGIA	1
TAILERRA ETA TEKNOLOGIAKO GELA	1
GARBIKETAKO GELA	2
INSTALAZIOAK	1
TELEKOMUNIKAZIOEN GELA	1
BILTEGIA	1
GIMNASIOA	1
ALDAGELAK	2
GIMNASIOKO BILTEGIA	2
IRAKASLE GELA	1
ZUZENDARITZA BULEGOA	1
IKASKETABURUAREN BULEGOA	1
IDAZKARITZA	1
ATEZAINZA FOTOKOPIAK	1
DEPARTAMENTUAK	4
GURASO ELKARTEAREN GELA	1
IKASLEEN GELA	1

**2. fasea**

- DBHko 6 lerro osatu arteko handitze-lanak (24 unitate)
- Azalera eraikia: 2.263 m<sup>2</sup>
- 2014/2015 ikasturtearen hasierarako aurreikusita dago lanen amaiera
- Aurrekontua: 2.302.127 euro

2. FASEA	UNIT. KOP.
GELAK	15
CURRICULUM ANIZTASUNNEKO GELA	1
BIKOIZKETAK	2
KOMUNAK	8
IRAKASLEEN KOMUNAK	2
MUSIKAKO GELA	1
INFORMATIKAKO GELA	1
PLASTIKAKO GELA	2
ZIENTZIETAKO LABORATEGIA	1
TAILERRA ETA TEKNOLOGIAKO GELA	1
DEPARTAMENTUAK	4

4. DBHI berriaren kostu osoak 5.012.127 euroko aurrekontua du.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012 ekainaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, Allozko urtegian traineruen jardunaldi bat egitearen berri ba ote den jakiteko.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Allozko urtegian traineruen jardunaldi bat egitearen berri ba ote den jakiteko.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 1eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko ekainaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Allozko urtegian traineru-estropada bati buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00073), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuo Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria Departamentuko kontseilariak:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak (Departamentu honi atxikitako erakunde autonomoa, kirol arloko eskumenduna) Allozko kanpineko kudeatzaileen bitartez jakin zuen Allozko Urtegiko 1. Trainera Estropadaren berri, Institutuko kudeatzaileei proiektua ahoz aurkeztu zietenlarik.

Gero, Ubagua Piragua Kirol Klubak diru-laguntza eskatu zuen, 2011n eta 2012an Nafarroan

kirol-ekitaldiak eta kirol-ikuskizunak antolatzeko klubentzako laguntzen deialdiaren barruan (apirilaren 16ko 163/2012 Foru Aginduaren bidez onartua, 2012ko maiatzaren 4ko NAO on argitaratua). Laguntza-eskari horretan, honako datu hauek aurkeztu zituzten:

– Ekitaldiaren data eta tokia: Allozko urtegia, 2012 ekainaren 17a

– Deskribapena: 3 txandako traineru-estropada, 4na ontzikoak (8 ontzi gizonezkoenak, eta 3 emakumezkoenak).

– Parte-hartzaileen kopurua: 168

– Gastuaren aurrekontua: 10.762,50 euro

– Diru-sarreraren aurrekontua (Nafarroako Gobernuarenak kanpo): 5.900 euro

Aipatutako diru-laguntzen deialdia ebatzi gabe dago oraindik (ekainaren 4an amaitzen zen laguntzak eskatzeko epea); hain zuzen ere, antolaketa-eta izapidetze-fasean dago laguntzak emateko prozedura, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko Zuzendariordetza Nagusiaren esku.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteriko kontseilaria: Marta Vera Janín (ekainaren 15eko Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren 9/2012 Foru Dekretua).

## Galdera, 2012-2013 ikasturterako irakasleen plantillei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitziber Sarasola Jaca andreak galdera egin du 2012-2013 ikasturterako irakasleen plantillei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 1eko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Aitziber Sarasola Jaca andreak 2012-2013 ikasturterako ratioei eta irakasle-plantillari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00089), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Ikuskaritzako eta Giza Baliabideetako Zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

2012-13 ikasturtean eskainiko diren behin-behineko lanpostuei dagokionez, jakinarazi da ikastetxeetako irakasle-plantillak oraindik guztiz erabaki gabe daudela eta neurtu gabe dagoela iraileko eskola-jarduna, eta, hortaz, ezin zehatz daitekeela langile-zerrendak zenbat murriztuko diren. Aldagai horiek eta beste batzuk kontuan hartuta, halere, 350 bat kontratu gutxiago egingo dira, gure kalkuluen arabera.

Bestalde, bi ikasturteen arteko lanpostuen kopuruaren aldean eragin handia du lanaldi partzialen kopuruak; horien arabera izango da kontratuen kopuruaren benetako zenbatekoa. Aste honetarako, 640 kontratu egingo ziren lanaldi osoak, eta 441, partzialak.

2011-12 ikasturtearen hasieran 7.715,62 irakasle zeuden, guztira.

Ratioen igoeraren ondoriozko taldeen aldaketari dagokionez.

Datu hauek ditugu, une honetan:

#### Haur eta Lehen Hezkuntza:

Berez, 30 talde izango dira, gehienez ere, 27 ikaslekoak, eta 65 talde, gehienez ere, 26 ikaslekoak.

Guztira, 2.072 talde.

#### DBH

Guztira 669 talde izango dira, eta horietatik zazpi izango dituzte 32 ikasle, eta beste zortzik, 31 ikasle.

#### Batxilergoa

Ez dago 35 ikasletik gorako talderik.

#### Lanbide Heziketa

Ez dago aldaketarik. Aurreko ikasturteetako ratioari eutsiko zaio.

Aldaketak zer tokitan gertatuko diren zehazterik ez dago irailera arte; izan ere, informazioa eskatzen denetik irailean eskolatzea amaitzen dena arte behin-behineko datuak eta datu aldatuak onargarriak ez ditugu izango eskura.

2012-2013 ikasturtean ratioa igotzeko aintzat hartutako jarraibideak: hezkuntzako gastu publikoa arrazionalizatzeko premia neurri buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Errege Lege Dekretuaren bigarren artikuluen arabera:

“Gastu publikoa murriztu beharra dagoela eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak Enplegu Eskaintza Publikoaren bidez langile berriak hartzea baimentzen ez badu edo 100eko 50etik beherako langileen berritze-tasa ezartzen badu, oinarritzko izaeraz, hezkuntza-administrazioek 100eko 20raino igo ahal izango dute maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoaren 157.1.a) artikuluan finkatutako irakasleen gehieneko kopurua, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan.

Ehuneko hori bera aplikatu ahal izango zaie, halaber, maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak araututako gainerako irakaskuntzetarako arau ezarritako irakasleen kopuruaren gehieneko mugei.

Artikulu honetan ezarritakoa ikastetxe publikoetako funts publikoak euskarri dituzten ikastetxe pribatuei aplikagarria izango zaie.”

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua irakasleen gehieneko kopuru hauek finkatu ditu, ziklo eta etapa bakoitzerako:

Haur Hezkuntzako 1. maila: 25 ikasle

Haur Hezkuntzako 2. maila: 26 ikasle

Haur Hezkuntzako 3. maila: 27 ikasle

Lehen Hezkuntza: 27 ikasle

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza: 32 ikasle

Batxilergoa: 35 ikasle

Lanbide Heziketa: 20 ikasle

Hezkuntza Departamentuak, irizpide horiek oinarri hartuta, ikastetxeen eta ikasgelen kasu eta egoerak aztertu ditu eta arazo eta kasuistiken araberak malgutu ditu ratioak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012 ekainaren 28a

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, Bankiari eginiko ekarpenetik Nafarroari egotzi beharreko kostuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

José Miguel Nuin Moreno jaunak galdera egin du Bankiari eginiko ekarpenetik Nafarroari egotzi beharreko kostuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 8ko 56. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Miguel Nuin Moreno jaunak Bankiari egindako ekarpenetik Nafarroari egotzi dakiokeen kostuari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00094), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmenak Nafarroak urtero estatuari egin beharreko diru-ekarpena zehazteko modua arautzen du, besteak beste.

Ekarpen horren bidez, Nafarroak estatuaren karga orokorren finantzaketan parte hartzen du.

54. artikulua ezartzen duenez, ekarpena kalkulatzeko, estatuaren zor guztien amortizazio-kuotak eta interesak sartu behar dira, betiere.

Paragrafoak zehazki hori badio ere, kontuan hartu behar da erreferentzia hori Estatuaren Administrazio Orokorraren Diru-sarreraren Aurrekontuaren esparruari buruzkoa dela.

Lehenengo galderari dagokionez, kontuan hartuta aurreko paragrafoan adierazitako oharrak,

esan beharra dago, hala ere, ez dela aurreikusten Nafarroak 2012an inolako kostu gehigarri izatea estatuak Bankiari egindako balizko ekarpen horren eraginez. Izan ere, Hitzarmen Ekonomikoaren arabera (59. eta 60. artikulua), Nafarroak bosturtekoko oinarri-urteaz bestelako urteetako bakoitzean ordaindu beharreko ekarpena kalkulatzeko, ordain hitzartuen bidez estatuaren diru-sarreretan izandako hazkundearen arabera eguneratze-indize bat aplikatzen zaio oinarri-urteko ekarpenari.

Eguneratze-indize horrek ez ditu kontuan hartzen estatuak bere aurrekontuko gastuak finantzatzeko beste kontzeptu batzuen bidez lor ditzakeen balizko beste diru-sarrera batzuk.

Bestalde, ez dago informazio ofizialik jakiteko estatuaren aurrekontuan eragina izango duten interesak eta amortizazioak zein diren.

Era berean, Nafarroak bere gain hartu gabeko kargen zenbatekoaren interesen eta amortizazio-kuoten balioespina bosturtekoko oinarri-urtean baino ez da egiten. Gainera, kontuan hartu behar da Hitzarmenaren 56.1 artikuluan estatuaren diru-sarrera ez-finantzarioen eta defiziten kasurako aurreikusitako ordainen balioespina, murriztu egiten baitute Nafarroak bere gain hartu gabeko kargen zenbatekoa eta, beraz, oinarri-urteko ekarpena. Hurrengo bosturtekoko oinarri-urtea 2015. urtea izango da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko ekainaren 29an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, osasun-garraioari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du osasun-garraioari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 22ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak larrialdiko osasun alorreko garraioaren nahiz osasun alorreko garraio arruntaren erabiltzaileei zerbitzua kobratzen ote zaien eta, hala bada, noiztik kobra-

tzen zaien jakiteko idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00098), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak osasun alorreko garraioaren zerbitzua (larrialdikoa nahiz arrunta) emateko anbulantzia-enpresa esleipendunekin egindako kontratuetan agertzen denez, enpresa horiek ezingo dute Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren erabiltzaileen-gandik inolako zenbatekorik jaso zerbitzua ematearen truke.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012 uztailaren 3an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, joan den ekainaren 2an krisian sartu ginenetik eginiko ordainketa, abonua eta jarduketa administratiboari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du joan den ekainaren 2an krisian sartu ginenetik eginiko ordainketa, abonua eta jarduketa administratiboari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 15eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak aurreko ekainaren 2an krisian sartuz geroztik egindako ordainketa eta jarduera administratiboari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez

(PES-00096), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Galderan aipatutako krisi-egoera ez da jaso kontularitza-sisteman garrantzi ekonomikoko gertaera modura jasotzeko moduko egintza administratibo zehatz edo egoera jakin gisa. Ordainketa-sistemek ohi bezala funtzionatu dute, eta inolako gorabehera adierazgarririk gabe egin dira Nafarroako Ogasunaren kontrako betebeharrak aitortuei dagozkien ordainketak.

Horrenbestez, ezin kuantifika daitezke galderak aipatutako ordainketa eta egoera administratiboak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko uztailaren 13an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, ETBko kanalak lurreko telebista digitalaren bidez hartzea normalizatzeko eta ahalbidetzeko kudeaketa-lanei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du ETBko kanalak lurreko telebista digitalaren bidez hartzea normalizatzeko eta ahalbidetzeko kudeaketa-lanei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 15eko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko uztailaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak TDT bidez ETB hartzeari buruz idatziz erantzuteko egindako

galderari dagokionez (PES-00095), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Osatu zenetik, Nafarroako Gobernuak etengabe izan du telefono bidezko harremana eta egin ditu bilerak Euskadiko Autonomia Erkidegoko EITB irrati-telebistako zuzendariekin, Nafarroako Gobernuaren eta Euskadikoaren artean Foru Komunitatean ETB hartzeko sinatutako lankidetzaren hitzarmena garatzeari begira.

2012ko martxoaren 14an, bilera bat egin zuten bi aldeek Nafarroako Jauregian. Bilera horretan parte hartu zuten, Nafarroako Gobernuaren izenean, Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilari Juan Luis Sánchez de Muniánek eta Komunikazio zuzendari nagusi Edurne Elío Aldunatek; eta, EITB taldearen izenean, Alberto Surío zuzendari nagusiak, Estrategia eta Kanpo Harre-

manetako zuzendari Patxi Arratibelek eta EITB irratien koordinatzaile Javier Torrontegik.

Bileran, EITBren ordezkariak euskal erkidegoko telebista Foru Komunitatean ikus zedin Nafarroako Gobernuarekin batera lan egiteko borondatea adierazi zuten. EITBko zuzendaritzako kideek, ordea, proiektuari aurre egiteko zailtasun ekonomikoak zeudela nabarmendu zuten, helburu hori betetzeko diru-ekarpen handia egin behar baita, baitu Nafarroako eta Euskadiko gobernuen artean sinatutako akordioan ikusten denez.

Era berean, interesa adierazi zuten Canal 4 Navarraren emisioak bertan behera gelditu ondoren libre geldi zitekeen erkidegoko lizentzia dela eta; bilera egin zen garaian, lizentzia hura itzuli gabe zeukan operadoreak. Prozedura administratiboa gerora bideratu zen, eta, haren amaieran, 25/2012 Ebazpena eman zuen Gobernuak Bozerramailearen Bulegoko Komunikazioko zuzendari

nagusiak (apirilaren 16an), Canal Navarra Digital SAri bere garaian emandako lurreko telebista digitaalera erkidegoko lizentzia bertan behera gelditzen zela jakinaraziz, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen moduan (2012ko maiatzaren 23a, 97. zk.).

Nafarroako Gobernuak EITBko zuzendaritzari jakinarazi zion prozedura administratiboa amaitua zela eta martxoaren 31ko Ikus-entzunezko Komunikazioaren 7/2010 Legeak ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuei buruz ezarritako araubide juridikoari jarraipena emango zitzaioela, ofizioz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko uztailean

Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Iruñean sindikatuek deitutako zenbait mobilizazio egin ziren egunetan helikoptero bat erabili izanari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Víctor Rubio Martínez jaunak galdera egin du Iruñean sindikatuek deitutako zenbait mobilizazio egin ziren egunetan helikoptero bat erabili izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 22ko 60. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko uztailearen 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa foru-taldeko foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak Foru Komunitateko Administrazioak kontrataturiko helikopteroak 2012ko maiatzaren 22, 29 eta 31n egindako hegaldiei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-097/12), hau erantzun dio Lehendakariak, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

Egun horietan Miluzeko basean zeuden bi helikopteroetatik zeinek egin zituen hegaldiak?

Aipatutako egunetan eta ekintzetan EC-1 helikopteroak egin zituen hegaldiak (EC-HJF matrikula).

Helikoptero bakoitzari esleitutako funtzioetatik zer funtzio dagozkio mobilizazioen gainean hegan ibili zenari?

Barne Departamentuko Zuzendaritza Nagusiaren eta COYOTAIR SA merkataritza-sozietatearen artean 2009ko abenduaren 29an sinatutako kontratuaren lehenengo klausularen arabera, A motako helikopteroa -aurreko galderan aipatutakoa mota horretakoa da-, erabilera anitzeko gailua da: polizia-operazioak, larrialdi egoeretako osasun-ebakuzioak, behaketa eta zaintza, larrialdiko eragiketak, babes zibileko lanak eta suteen kontrako borroka.

Zenbateko hegaldi-autonomia du?

4 orduko autonomia dauka.

Zenbat denborako hegaldia egin zuen helikoptero horrek goian adierazitako egun horietako bakoitzean?

Hau da egun horietan egin ziren hegaldien zerrenda:



2012/05/22	8:40tik 9:10era, 0,30 ordu.
	11:50etik 13:45era, 1,55 ordu.
2012/05/29	8:40tik 9.10era, 0,30 ordu.
	11:05etik 12:15era, 1,10 ordu.
	12:50etik 13:50era, 1,00 ordu.
2012/05/31	9:45etik 10:10era, 0,25 ordu.
	11:10etik 12:45era, 1,35 ordu.
	13:25etik 14:00etara, 0,35 ordu.

Manifestazioen irudiak grabatu ziren hegaldi horietan?

Foruzaingoak emandako informazioaren arabera, ez zen inolako grabaziorik egin 2012ko maiatzaren 22, 29 eta 31ko hegaldietan.

Zer irizpide kontuan hartzen dira helikopteroa ordena publikoko eginkizunetarako erabiltzeko garaian?

Baliabide publikoak erabiltzeko, proposatutako helburuak lortzeko egokitasuna kontuan hartzen da, betiere; bereziki, kasuan kasuko xehetasunak aztertuta, ikusten denean jendetza bil dezaketen aldizkako jardueren garapena eta eguneroko bizitzako jarduerak uztartu beharko direla, herritarren eskubide eta askatasunak gauzatzeko askatasuna eragozten duten ordenaren gorabeherak gerta daitezzen saihesteko edo herritarren segurtasuna arriskuan jar dezaketen egoerak gerta daitezzen saihesteko.

Zein da helikopteroak manifestazioen gainean hegaldiak egiteko baimena ematen duen azken arduraduna?

Segurtasunarekin eta larrialdiekin lotura duten zerbitzu operatiboek hegaldi programatu bat egiteko eskaria egiten dutenean, hegaldi horretarako erreserba egin behar da 112-SOS Nafarroa Larrialdien Kudeaketarako Zentroan. Gero, hegaldia egiten da, baldin eta aldi berean lehentasunez erantzun beharreko larrialdirik sortzen ez bada eta eguraldi- eta aeronautika-baldintza egokiak badaude, misioa esleitzen zaion pilotuaren iritziz. Koordinazioaren ardura Larrialdien Kudeaketarako Zentroarena da.

Erabaki operatiboari dagokienez, eskaria egiten duen zerbitzuari dagozkio; kasu honetan, Foruzaingoari.

Iruñean, 2012ko uztailaren 20an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: Javier Morrás Iturmendi

## **Galdera, Nafarroako Kutzako estatutu-aldaketei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Kutzako estatutu-aldaketei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 29ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako Gobernuak Ogasun Ministerioarekin batera landutako CANen estatutuen aldaketei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-100) hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Kutzaren egitura Caixabanken bategite-prozesuaren ondorioz sorturiko egoera berrira egokitzen du testu berriak; prozesu horren bidez, banketxe instrumental baten bidez gauzatu da finantza-jarduera, zeharka, eta Kutzaren esku geldituko da akzioen jabetza gauzatzea eta Gizarte Ekintzaren zuzendaritza eta kudeaketa.

Estatutu berriek barne-antolaketaren egituraren sinplifikazioan sakontzen dute, eta finantza-jar-

duera zeharka gauzatzetik eratorritako egoera berrira egokitzen dute erakundearen egitura organiko berrira; hala, eutsi egingo die sorrerako egitekoari eta Aurrezki Kutxen Zuzendaritza Organoei buruzko Legeak ezarritako gutxieneko antolaketeskemari (uztailaren 9ko finantza-sektorearen saneamenduari buruzko 11/2010 Lege Errege Dekretuan jasotako idazketarekin eta otsailaren 3ko 2/2012 Lege Errege Dekretuak ezarritako aldaketekin bat etorrira).

Aldaketa nagusia Nafarroako Kutxa Fundazioaren organoen kopurua murriztea izan da. Hain zuzen ere, gobernu-organo izateari utzi diote Erakundearen Batzarrak eta Kontrol Batzordeak, eta deuseztatu egin dira ordainsari-dietak. Bestalde, nabarmen murriztu da Kontseilu Orokorreko kideen kopurua (50 kidetik 20ra) eta Administrazio Kontseilukoena (16 ziren lehen, eta 12 izango dira orain).

Planteatutako erreformaren bidez, jatorrizko bi printzipioak uztartu nahi dira: lurralde-sustrai tradizionalerako errespetua eta begiramena, Nafarroaren garapen ekonomiko eta sozialari ekarpena eginez, Gizarte Ekintzaren bidez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko uztailaren 30a

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, jakitekoa zer dela-eta ez den egin Nafarroako Kutzaren ikuskapenik.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakitekoa zer dela-eta ez den egin Nafarroako Kutzaren ikuskapenik.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko ekainaren 29ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko abuztuaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako Kutzari ikuskaritzarik egin ez izanari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-101), hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

Nafarroako Kutzaren aurreko estatuetako 81. artikulua eta gaur egun indarrean dauden estatu-

tuetako 59. artikulua Nafarroako Gobernuak ikuskaritza egiteko aukera aipatzen dute. Artikulu horien edukiarekin bat etorrira, Espainiako Bankuak emandako jarraibideen arabera gauzatu behar dira ikuskaritza horiek.

Xedapen horiek erakunde honi egozten diotenez Nafarroako Kutzaren ikuskaritza gorena, Nafarroako Gobernuak erabaki du ikuskaritza horiek zeregin horretarako eskumenak eta baliabide material eta humano egokiak dituenak egin ditzala, Kreditu Erakundearen Diziplinari eta Esku-harzteari buruzko araudiaren baitan.

Aipatu beharra dago Espainiako Bankuak aurrez ikuskaritza-lanik egin izan duen orotan Nafarroako Gobernuari jakinarazi izan diola.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko uztailaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, osasun-garraioaren arloko zerbitzuko langileek titulazioa lan esperientziaren bidez eskuratzeko egiaztatze-prozesuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Pedro Rascón Macías jaunak galdera egin du osasun-garraioaren arloko zerbitzuko langileek titulazioa lan esperientziaren bidez eskuratzeko egiaztatze-prozesuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Pedro Rascón Macías jaunak osasun alorreko garraio-zerbitzuetan diharduten langileei 836/2012 EDaren arabera eskatzen zaizkien titulua lortzeko lan-esperientzia bidezko egiaztapen-prozesuak direla-eta Hezkuntza Departamentuak dituen aurreikuspenei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00102), eta Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketako Zerbitzuaren txostena ikusirik, hau erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak:

Maiatzaren 25eko 836/2012 EDa, zeinak ezarzen baititu errepide bidezko osasun arloko garraiorako ibilgailuetako langile-hornidura, ekipamendu sanitarioa eta ezaugarri teknikoak, 4. artikuluan (Langile-hornidura) dio honako langile-hornidura hau izan beharko dutela osasun alorreko garraio-zerbitzuetako ibilgailuek: A1 eta A2 anbulantziek gidari bat izan beharko dute, gutxienez, maiatzaren 20ko 710/2011 Errege Dekretuan aurreikusten den osasun alorreko garraiorako profesionaltasun-egiaztatzea duena. Era berean, B eta C motetako asistentzia-anbulantziek gidari bat izan behar dute, gutxienez, urriaren 29ko 139/2007 Errege Dekretuan aurreikusten den Osasun Larrialdietako Teknikaria titulua duena (Lanbide Heziketa).

Hezkuntza Departamentuak "Lanbide Gaitasunak Ebaluatzeko eta Egiaztatze prozeduraren lau deialdi egin ditu, orain artean, SAN025\_2 Transporte sanitario eta SAN122\_2 Atención sanitaria a múltiples víctimas y catástrofes kualifikazioei dagozkienak. Prozedura horren bidez 120 lagun ebaluatu dira, eta ia denak daude Osasun Alorreko Profesionaltasun Egiaztatzea eskuratzeko egoeran, 77k dagoeneko lortu dute Osasun Larrialdietako Teknikaria titulua eta beste 30 daude titulu hori ekainean eskuratzeko moduan.

Bestalde, Hezkuntza Departamentuak Osasun Larrialdietako Teknikaria titulua online eskuratzeko prestakuntza-eskaintzaren bi deialdi egin ditu (2010-11 eta 2011-12), horiek ere langileei begira, nagusiki. 2012ko irailean irekiko da hirugarren deialdian (2012-13) izena emateko epea. 150 lagunek parte hartuko dutela aurreikusten da (modulukarga gorabehera), eta horietatik 40 lagunek eskuratu dute, ia seguru, titulu osoa ikasturte akademiko honetan.

Orain arte azaldutako guztiaz gainera, maiatzaren 25eko 836/2012 Errege Dekretuaren bigarren

xedapen iragankorrak dio errege dekretu hori indarrean sartu zenetik atzerako sei urteetan anbulantzia-gidari gisa hiru urtetik gorako lan-esperientzia modu frogagarrian egiaztatzen duten pertsonak gaituta egongo direla A1 eta A2 motetako anbulantzia ez-asistentzialak gidatzeko, eta, era berean, B eta C motetako anbulantzia asistentzialetako gidari izateko gaituta egongo direla errege dekretu hori indarrean sartu zenetik atzerako zortzi urteetan anbulantzia asistentzialen gidari gisa bost urteko lan-esperientzia egiaztatzen dutenak. Gaitze horiek emateko eskumena autonomia-erkidegoena da.

Bestalde, Nafarroako Larrialdi Sanitarioetako Teknikarien Unitatearen kalkuluen arabera –eta hori da sektorean ordezkari handiena duena gure komunitatean–, 2009an lan-esparru honetako gaitasunak egiaztatze prozedura abian jarri zenean berrehun langile pasatxo besterik ez ziren ari osasun alorreko garraioan teknikari gisa.

Hori guztia dela-eta, Hezkuntza Departamentuaren aburuz, kontuan hartuta orain arte garatutako egiaztapen-prozesuak, artean indarrean dagoen prestakuntza-eskaintza eta legearen aurreikuspenak, gure komunitateak osasun alorreko garraioaren sektoreko kualifikazio-premiei erantzuteko behar bezala egiaztatutako edo/eta gaitutako profesionalen estaldura zabala izango du. Edonola ere, gaitasunak egiaztatze eskaintza beste 30 plazako deialdi batez luzatzea aurreikus daiteke (baliabide ekonomikoen arabera).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko irailaren 26an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

## **Galdera, Nafarroako Kutzaren estatutuak aldatze aldera Ekonomia Ministeriora igorritako testuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako Kutzaren estatutuak aldatze aldera Ekonomia Ministeriora igorritako testuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko irailaren 26an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Maiorga Ramírez Erro jaunak Nafarroako

Kutzaren estatutuen aldaketari loturik Nafarroako Gobernuak eskatutako txostenei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-106), atxikita igortzen ditu Estatutuen aldaketari buruzko dokumentuak, ez baitago idazketa-prozesuari buruzko aurretiko txostenik.

Hori guztia jakinarazten dizut Erregelamendua-ren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko irailaren 28an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Agora aplikazioan)

## **Galdera, ospitaleguneko sukaldeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Bakartxo Ruiz Jaso andreak galdera egin du ospitaleguneko sukaldeei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 17ko 72. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko irailaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-00122), hau erantzun du Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak:

- Lanak amaitu ondoren, zerbitzua enpresa pribatuaren esku gelditzen denean, non prestatuko da jana?, Han bertan prestatuko dute? Edo kanpotik eramango dute?

Inola ere ezin esan daiteke janariak prestatzeko zerbitzua enpresa pribatuaren esku geldituko dela. O-NOZ da eta izango da zerbitzu horren titu-

larra. Lanei dagokienez, berriz, esleipendunak beharrezko lizentzia eskuratzen duenean hasiko dira. Lanak amaitu eta sukalde berria osorik muntatutakoan jarriko da sukalde abian; sukalde horretan prestatuko ditu enpresa esleipendunak dietak, Xedapen Teknikoen Agiriaren 2.1.13 klausulan agertzen den moduan, zeinak baitio: Janariak kudeaketa-unitateak xede horretarako izango dituen lokaletan prestatu eta landuko dira.

- Zer epetan amaituko dira lanak? Bitarte horretan, nola prestatuko da janaria?

Agiriaren 13. klausulan ezarritakoari jarraituz, obra-lizentzia eskuratzen den datatik bost hilabete epean, gehienez ere, osorik muntatuta eta lanean hasita egongo da sukalde.

Lanak amaitu eta sukalde berria muntatu bitartean, oraingo sukaldeetan prestatuko da jana, eta esleipenaren aurreko modu berean kudeatuko da prestatuta, Xedapen Teknikoen Agiriko 13. klausulak dioenarekin bat etorrira.

Hori guztia jakinarazten dizut Erregelamendua-ren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko irailaren 27an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, Jiménez Alli lehen lehendakariorde kargutik kentzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Enrique Martín de Marcos jaunak galdera egin du Jiménez Alli lehen lehendakariorde kargutik kentzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko irailaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Grupo Popular parlamentu-taldeko foru parlamentari Enrique Martín de Marcos jaunak goi-kargudunei eta kargua utzi ondoko ordainsariei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES 104/12), honako hau jakinarazi du Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilariak:

1. Roberto Jiménezek Nafarroako Gobernuko lehen lehendakariorde izateari utzi ondoren ordezkaturako Nafarroako Foru Administrazioako goi-kargudunen zerrenda.

Nafarroako Gobernuaren berri ondoren kargutik kendutako eta izendatutako goi-kargudunen zerrenden taulak atxiki dira. Taula horietan ez dira agertzen galderarekin loturarik ez duten beste aldaketa batzuk.

2. Kargua utzi ondorengo ordainsaria kobratzea eskatu duten goi-kargudunen zerrenda.

Taula bat atxiki da, kargua utzi ondorengo ordainsaria eskatu duten goi-kargudunen banakako zerrendarekin. Taula horretan, kargudun bakoitzak kargua utzitako data eta kargua utzi ondoren-

go ordainsaria eskatutako data ageri dira, banan-banan; baita prestazioaren hasierako eta amaierako datak eta hilabete bakoitzean orain arte ordaindu zaien zenbatekoa ere.

3. Bateriaezintasunen erregimena aplikatuko zaien denbora-epea.

Goi-kargudunen bateraezintasunen erregimena kargua utzi eta hurrengo bi urteen barruan eska daiteke, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legearen 3.bis artikulua- ren 1. atalean xedatutakoaren arabera.

4. Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi-kargudunen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 16/1996 Foru Legea aldatzen duen ekainaren 21eko 12/2012 Foru Legea indarrean sartu zen data.

Ekainaren 21eko 12/2012 Foru Legea (2012ko ekainaren 28ko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 125. zenbakian argitaratua) argitaratu eta handik sei hilabetera sartuko da indarrean, haren amaierako bigarren xedapenak dioen moduan.

5. Nafarroako Gobernuaren berrikuntzaren ondorioz ezabatutako goi-karguen zerrenda, eta ezabatze horretatik eratorritako diru-aurrezkoa.

Ezabatutako goi-karguen zerrenda Nafarroako Gobernuaren berrikuntzaren ondoren kargutik kendutako goi-kargudunen eta izendatutako goi-kargudunen informaziotik atera da. Ezabatze horretatik eratorritako diru-aurrezkoa urteko 97.654,76 eurokoa da.

Iruñean, 2012ko irailaren 28an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: Javier Morrás Iturmendi

ROBERTO JIMÉNEZEK LEHENDAKARIORDE IZATEARI UTZI ONDOREN  
KARGUTIK KENDUTAKO GOI-KARGUAK

kargutik kentzeak

**LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE  
DEPARTAMENTUA**

ANTOLAKETA-EGITURA	IZENA	LANPOSTUA	Zk.
LEHENDAKARITZA, HERRI ADMINISTRAZIO ETA BARNE DEPARTAMENTUA	ROBERTO JIMÉNEZ ALLI JAUNA	GOBERNUKO LEHENDAKARIORDEA ETA KONTSEILARIA	1
KABINETEA	AYARRA IZCO, NATALIA	KABINETEKO BURUA	1
NAFARROAKO LARRIALDIETAKO AGENTZIA	VAZQUEZ ROYO, JOSE MARIA	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
NAFARROAKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOAREN INSTITUTUA	TABERNA MONZON, FELIX MARIA	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA	JOSÉ LUIS IZCO BIARGE	ZUZENDARI NAGUSIA	1
GAI JURIDIKOEN ETA LEHENDAKARITZAREN ZUZENDARITZA NAGUSIA	PERNAUT OJER, MARTA	ZUZENDARI NAGUSIA	1
GOBERNU IREKIAREN ETA TEKNOLOGIA BERRIEN ZUZENDARITZA NAGUSIA	GARMENDIA PEREZ, GUZMAN MIGUEL	ZUZENDARI NAGUSIA	1
JUSTIZIA ETA BARNE ZUZENDARITZA NAGUSIA	JURIO MACAYA, INMACULADA	ZUZENDARI NAGUSIA	1
<b>LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>8</b>

**EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU  
DEPARTAMENTUA**

ANTOLAKETA-EGITURA	[H1]IZENA	LANPOSTUA	Zk.
EKONOMIA ETA OGASUNEN DEPARTAMENTUA	MIRANDA SIMAVILLA, ALVARO	GOBERNUKO LEHENDAKARIORDEA ETA KONTSEILARIA	1
<b>EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>1</b>

**LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI  
ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA**

ANTOLAKETA-EGITURA	IZENA	LANPOSTUA	Zk.
LANDA GARAPEN, IND., ENPL. ETA INGURUMENEN DEPARTAMENTUA	GOICOECHEA ZUBELZU, MARIA LOURDES	GOBERNUKO KONTSEILARIA	1
KABINETEA	PEREZ AYERRA, RAQUEL	KABINETEKO BURUA	1
NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA	ESPARZA ABAURREA, JOSE JAVIER	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA (NEZ)	1
<b>LANDA GARAPEN, INGUR. ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>3</b>

## kargutik kentzeak

## SUSTAPEN DEPARTAMENTUA

ANTOLAKETA-EGITURA	IZENA	LANPOSTUA	Zk.
SUSTAPEN ETA ETXEBIZITZA DEPARTAMENTUA	ASTIZ MEDRANO, ANAI	GOBERNUKO KONTSEILARIA	1
KABINETEA	LECUMBERRI ALLI, ESTHER	KABINETEKO BURUA	1
HERRI LANETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	BONAFAX MARTINEZ, MARIA DEL CAMINO	ZUZENDARI NAGUSIA	1
GARRAIOEN ZUZENDARITZA NAGUSIA	MIRANDA ORDOBAS, BERTA	ZUZENDARI NAGUSIA	1
ETXEBIZITZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	GOMEZ SANCHEZ, MARIE LAURE	ZUZENDARI NAGUSIA	1
<b>SUSTAPEN DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>5</b>

## GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA

ANTOLAKETA-EGITURA	IZENA	LANPOSTUA	Zk.
GIZARTE POLITIKA, BERDINTASUN, KIROL ETA GAZTERIA DEPARTAMENTUA	TORRES MIRANDA, MARIA ELENA	GOBERNUKO KONTSEILARIA	1
KABINETEA	ERDOCIAIN SARALEGUI, ALICIA	KABINETEKO BURUA	1
GIZARTE POLITIKA ETA KONTSUMOKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	MONZON ROME, JOSE JAVIER	ZUZENDARI NAGUSIA	1
NAFARROAKO PERTSONEN AUTONOMIARAKO AGENTZIA	PUYO GRACIA, ANA CONCEPCION	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA	RODRIGUEZ GARAYAR, MIGUEL	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
NAFARROAKO KIROLAREN ETA JARDUERA FISIKOAREN INSTITUTUA	POZUETA URIBE ECHEVERRIA, MIGUEL ANGEL	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO ETA FAMILIARAKO INSTITUTUA	SAIZ DELGADO, ELMA	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
KUDEAKETAKO ZUZENDARIORDETZA	CASTILLEJO HERNANDEZ, CAROLINA	ZUZENDARIORDEA	1
FAMILIENTZAKO POLITIKEN PLANGINTZA ETA KUDEAKETAKO ZUZENDARIORDETZA	IGLESIAS ESTAUN, CARLOS JAVIER	ZUZENDARIORDEA	1
KIROLAREN ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	ARBELOA FREIRE, IGNACIO	ZUZENDARIORDEA	1
<b>GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>10</b>

## KARGUTIK KENDUTAKOAK, GUZTIRA:

27



ROBERTO JIMÉNEZEK LEHENDAKARIORDE IZATEARI UTZI ONDOREN  
IZENDATUTAKO GOI-KARGUAK

**IZENDATUTAKO KARGUDUNAK**

**LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE  
DEPARTAMENTUA**

ANTOLAKETA-EGITURA	IZENA	LANPOSTUA	Zk.
LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA	MORRAS ITURMENDI, FRANCISCO JAVIER	GOBERNUKO KONTSEILARIA	1
KABINETEA	GONZALEZ ECHARREN, ALFREDO	KABINETEKO BURUA	1
NAFARROAKO LARRIALDIETAKO AGENTZIA	EZPELETA ITURRALDE, ERADIO	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
GOBERNU IREKIA ETA TEKNOLOGIA BERRIEN ZUZENDARITZA NAGUSIA	ELIZONDO NEVARES, VALENTIN	ZUZENDARI NAGUSIA	1
BARNE ZUZENDARITZA NAGUSIA	FERNANDEZ ELIZALDE, FRANCISCO JOSE	ZUZENDARI NAGUSIA	1
LEHENDAKARITZA ETA JUSTIZIA ZUZENDARITZA NAGUSIA	RUIZ CIRUELOS, JOSE LUIS	ZUZENDARI NAGUSIA	1
<b>LEHENDAKARITZA, JUSTIZIA ETA BARNE DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>6</b>

**EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU  
DEPARTAMENTUA**

ANTOLAKETA-EGITURA	IZENA	LANPOSTUA	Zk.
EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUA	GOICOECHEA ZUBELZU, MARIA LOURDES	GOBERNUKO LEHENDAKARIORDEA ETA KONTSEILARIA	1
NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA	GARCIA MALO, MARIA ISABEL	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA (NEZ)	1
<b>EKONOMIA, OGASUN, INDUSTRIA ETA ENPLEGU DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>2</b>

**LANDA GARAPEN, INGURUMEN ETA TOKI  
ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA**

ANTOLAKETA-EGITURA	IZENA	LANPOSTUA	Zk.
LANDA GARAPEN, INGUR. ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA	ESPARZA ABAURREA, JOSE JAVIER	GOBERNUKO KONTSEILARIA	1
KABINETEA	PEREZ AYERRA, RAQUEL	KABINETEKO BURUA	1
TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA	PEREZ ARREGUI, FRANCISCO	ZUZENDARI NAGUSIA	1
<b>LANDA GARAPEN, INGUR. ETA TOKI ADMINISTRAZIOKO DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>3</b>

**IZENDATUTAKO KARGUDUNAK****SUSTAPEN DEPARTAMENTUA**

ANTOLAKETA-EGITURA	IZENA	LANPOSTUA	Zk.
SUSTAPEN DEPARTAMENTUA	ZARRALUQUI ORTIGOSA, LUIS MARIA JOAQUIN	GOBERNUKO KONTSEILARIA	1
KABINETEA	HERCE ECHAURI, TATIANA	KABINETEKO BURUA	1
HERRI LANETAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA	NAGORE LAIN, IGNACIO MARIA	ZUZENDARI NAGUSIA	1
ETXEBIZITZA ETA LURRALDEAREN ANTOLAMENDU ZUZENDARITZA NAGUSIA	MARCEN ZUNZARREN, JOSE ANTONIO	ZUZENDARI NAGUSIA	1
<b>SUSTAPEN DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>4</b>

**GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA**

ANTOLAKETA-EGITURA	IZENA	LANPOSTUA	Zk.
GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA	PEJENAUTE GRAVALOS, JESUS	GOBERNUKO KONTSEILARIA	1
KABINETEA	MARTINEZ GONZALEZ, MARIA DEL ROSARIO	KABINETEKO BURUA	1
GIZARTE POLITIKA ETA KONTSUMO ZUZENDARITZA NAGUSIA	ALLI MARTINEZ, IÑIGO	ZUZENDARI NAGUSIA	1
NAFARROAKO PERTSONEN AUTONOMIARAKO AGENTZIA	OTO VINUES, MARIANO	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA	INDURAIN LARRAYA, PRUDENCIO	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
NAFARROAKO BERDINTASUNERAKO ETA FAMILIARAKO INSTITUTUA	NAGORE FERRER, TERESA MARIA	ZUZENDARI-KUDEATZAILEA	1
FAMILIARAKO ETA HAUR ETA NERABEEN ARRETARAKO ZUZENDARIORDETZA	OYAGA ZALBA, AGUSTIN	ZUZENDARIORDEA	1
AZPIEGITUREN ZUZENDARIORDETZA	ARBELOA FREIRE, IGNACIO	ZUZENDARIORDEA	1
GENERO BERDINTASUNEKO POLITIKEN ZUZENDARIORDETZA	GUTIERREZ ALVAREZ, MARIA JESUS	ZUZENDARIORDEA	1
KIROLAREN ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	ARAZARENA REDIN, PEDRO	ZUZENDARIORDEA	1
GAZTERIAREN ZUZENDARIORDETZA NAGUSIA	ANSA ECHEGARAY, ANGEL	ZUZENDARIORDEA	1
<b>GIZARTE POLITIKEN DEPARTAMENTUA, guztira</b>			<b>11</b>

**IZENDAPENAK, GUZTIRA:****26**



## Galdera, PFEZaren egungo tarifa-tarteetako bakoitzean, 2012an izandako dirubilketa garbiari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du PFEZaren egungo tarifa-tarteetako bakoitzean, 2012an izandako dirubilketa garbiari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren 2012ko bilketaren atalkako zenbatekoaren igoerari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-116), hau erantzun du Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

2011ko zergaldiko pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari dagokionez Nafarroan aurkeztutako aitortpenen erregistroen arabera (aitortpen horiek aurkezteko borondatezko epea 2012ko ekainaren 22an amaitu zen), hauek dira eskatutako datuak:

<b>2011 PFEZ</b> <i>PO kuota osoa (2011-PFEZ TARIFA)</i> <i>PO LOren arabera, 2012-PFEZ karga ATALKA</i>		
	<b>Aitortpen-egileen kopurua</b>	<b>PO kuota osoa 526l (€)</b>
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 3.825 € baino TXIKIAGOA edo berdina	<b>195246</b>	14.608.711,35
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 3.825 eta 8.499 euro bitartekoa	<b>59015</b>	58.323.443,47
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 8.499 eta 17.526 euro bitartekoa	<b>106738</b>	281.578.347,40
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 17.526 eta 30.805 euro bitartekoa.	<b>93402</b>	504.539.698,92
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 30.805 eta 45.480 euro bitartekoa	<b>27467</b>	258.631.576,70
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 45.480 eta 53.407€ euro bitartekoa	<b>4804</b>	68.469.681,21
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 53.407 eta 88.000 euro bitartekoa	<b>6638</b>	140.110.150,55
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 88.000 eta 125.000 euro bitartekoa	<b>1268</b>	46.774.054,85
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 125.000 eta 175.000€ euro bitartekoa	<b>469</b>	25.876.113,12
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 175.000 eta 300.000 euro bitartekoa	<b>217</b>	19.455.708,86
P. Orokorreko LIKIDAZIO-OINARRIA 300.000 eurotik gorakoa	<b>98</b>	20.920.880,84

Informazio hori kontuan hartuta, honako ohar hauek egin behar dira:

Atxikitako datuek zergadunek berek aurkeztu berri dituzten aitopenetan emandako informazioa jasotzen dutenez, litekeena da gerora administrazioak horiek berrikustea.

“Bilketa garbia” ez dago horrela kodetuta PFEZaren aitopenetan. Hala, aurkeztutako informazioa 526 laukitxoan adierazitako zenbatekoarena da, eta honako honi dagokio: PFEZaren Foru Legearen Testu Bategineko (4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa) 59. Likidazio-oinarri orokorraren karga artikuluan ezarritakoa aplikatetik ondorioztatzen den kuota osoa (2011ko zergaldirako indarrean dagoen idazketa kontuan hartuta).

Ondorio horietarako, gogorazi beharra dago Legegintza Dekretu horren 58. artikulua araberaz, zergaren kuota osoa bi kuota batuz lortzen dela: Likidazio-oinarri orokorraren kargaren ondoriozkoa eta aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren kargaren ondoriozkoa. Eta, 60. artikuluekin bat etorrira, zergaren kuota likidoa lortzeko kuota osolari 62. artikuluan aurreikusten diren etatik ondorioztatutako kenkariak kendu behar zaizkiola.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko irailaren 26an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, 2012an PFEZaren tarifaren azken hiru tarteetako dirubilketa garbiari buruz, baldin eta tasa ehuneko 5,3 eta 3 handiagoa izan balitz.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du 2012an PFEZaren tarifaren azken hiru tarteetako dirubilketa garbiari buruz, baldin eta tasa ehuneko 5,3 eta 3 handiagoa izan balitz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 2012an baldintza jakin batzuetan pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren atalkako bilketaren balizko igorriari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (8-12/PES-117), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Egindako kalkuluetatik honako datu hauek ondorioztatu dira:

2012-PFEZ PO LO KARGA "GALDERA"n adierazitako ehunekoaren arabera aldatua				"2012-PFEZ, GALDERAKO ehunekoarekin" vs 2012-PFEZ	526 I kuota osoaren igoeraren kalkulua
		3.825,00	% 13,00	% 0,00	
<b>3.825,00</b>	497,25	4.674,00	% 22,50	% 0,00	
<b>8.499,00</b>	1.548,90	9.027,00	% 25,50	% 0,00	
<b>17.526,00</b>	3.850,79	13.279,00	% 29,50	% 0,00	
<b>30.805,00</b>	7.768,09	14.675,00	% 38,00	% 0,00	
<b>45.480,00</b>	13.344,59	7.927,00	% 42,50	% 0,00	
<b>53.407,00</b>	16.713,57	34.593,00	% 45,00	% 0,00	
<b>88.000,00</b>	32.280,42	37.000,00	% 46,50	% 0,00	
<b>125.000,00</b>	49.485,42	50.000,00	% 50,00	% 2,00	187.173,88
<b>175.000,00</b>	74.485,42	125.000,00	% 51,50	% 3,00	530.456,37
<b>300.000,00</b>	138.860,42	Oinarriaren gainerakoa:	54,00%	% 5,00	1.469.991,92
					<b>2.187.622,17</b>

Kalkulua egiteko, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari dagokionez Nafarroan aurkeztutako aitorpen bakoitzeko 523 laukitxoan adierazitako likidazio oinarri orokorraren zenbatekoa erabili da, 2011ko zergaldikoa (aitorpen horiek aurkezteko borondatezko epea 2012ko ekainaren 22an amaitu zen).

Oinarri horietatik abiatuta, kuantifikatutako zenbatekoak honako kopuru hauen arteko diferentzia adierazten du, 2011 zergaldian aurkeztutako aitorpen bakoitzari dagokionez:

2012ko zergaldirako indarrean dagoen (PFE-Zen Foru Legearen Testu Bategineko 59. artikuluko tarifa, dagokion karga gehituta, otsailaren 14ko 2/2012 Foru Legearekin bat etorrita) likidazio oinarri orokorraren kargen eskalan galderan planteatutako bazter-tipoak aldatzetik eratorriko litzatekeen kuota osoen batura, atxikitako tarifaren arabera.

2012ko zergaldirako indarrean zegoen (PFE-Zen Foru Legearen Testu Bategineko 59. artikuluko tarifa, dagokion karga gehituta, otsailaren 14ko 2/2012 Foru Legearekin bat etorrita) oinarri likidagarri orokorraren karga eskala aplikatuz izango liratekeen kuota oso orokorraren batura.

Gogoratu beharra dago zergaren kuota osoa lortzeko bi kuota batzen direla: Likidazio-oinarri orokorraren kargaren ondoriozkoa eta aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren kargaren ondoriozkoa. Era berean, zergaren kuota likidoa lortzeko, kuota osoan PFEZaren araudiak aurreikusitakoarekin bat etorrita egin beharreko kenketak egin behar dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko irailaren 26an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Nafarroak dohainik hartzen zaitu” izeneko turismo kanpainari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Amaya Zarranz Errea andreak galdera egin du Nafarroak dohainik hartzen zaitu” izeneko turismo kanpainari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Grupo Popular parlamentu-taldeko foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak “Nafarroak dohainik hartzen zaitu” turismo-kanpainari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00103) hau erantzun du Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, bozeramaile eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuko Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak otsailaren 10ean emandako “Ostatuetarako, jatetxeetarako, bisitetarako eta turismo-jardueretarako laguntzen deialdia. 2012ko ekitaldia” 12E/2012 Foru Agindua-ren bitartez onartu zen kanpaina hori, eta 600.000 euroko hornidura ezarri zen.

Deialdi horretan, deskontuak aurreikusten ziren banakako bezeroentzat, bi gau igarotzen zituzten taldeentzat, gau bat igarotzen zuten taldeentzat eta bi gaueko egonaldia egiten zuten Nafarroako harrera-agentzien bezeroentzat.

Banakako bezeroen 22.837 deskargatu dira; bi gaueko taldeen 200 bono, gau bateko taldeen 209 bono eta bi gaueko egonaldia egiten zuten Nafarroako harrera-agentzien bezeroen 48 bono. Guztira, 37.951 turista izan dira kanpainaren onuradun.

Bonoak kanpainak iraun duen egun guztietan trukatu dira, xede horrekin diseinaturiko aplikazio informatikoaren bidez. Aplikazio horri esker edozein ordenagailutatik deskarga zitezkeen bonoak, eskatzailearen jatorria edozein dela ere.

www.navarraterrecibegratis.com webgunean etengabe eskuragarri egon ziren bonoak. Deskargak egiteko epea martxoaren 28an hasi zen, eta apirilaren 18an amaitu; beraz, eguneko batez beste deskargen kopurua 460 bonokoa izan zen, 50 egun horietan.

Kanpainaz baliatu diren turisten jatorriari dagokionez, aplikazioak datu hori zehazten ez duen arren, nagusiki turista nazionalak erabili dute, eta presentzia oso esanguratsua izan dute nafarrek eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko turistek. Betiere, kanpainan zehar hainbat bidetatik ostatu ekin izan diren harremanetatik ondoriozta daitezkeenez.

Kontsumitutako bonoen balioaren zenbatekoa, guztira, 482.386 eurokoa izan da, eta batez beste bonoen balioaren %48ko erabilera adierazten du; banakako bonoetan, ez da iritsi %46ra.

Kanpainarekin bat egin zuten 871 establezimenduetatik 576k parte hartu dute modu aktiboan (475 jabe).

Deialdian erreserbak egiteko beste epe bat irekitzeko aukera aurreikusten bazen ere (irailaren 16tik azaroaren 30era), ezin izan da epe hori ireki, Departamenduak eta Zuzendaritza Nagusiak egin behar izan zituzten aurrekontu-egokitzapenen ondorioz. Ildo horretatik, kontuan hartu zen Nafarroako Turismo Kontseiluaren saioetan sektoreak adierazitako irizpidea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urrian

Bigarren lehendakariorde, bozeramaile eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, argitalpenen gaineko politikari dagokionez lortu nahi diren helburuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Román Felones Morrás jaunak galdera egin du argitalpenen gaineko politikari dagokionez lortu nahi diren helburuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari Román Felones Morrás jaunak argitalpenei buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00108), hau erantzun du Nafarroako Gobernuak Kultura, Turismo eta Erkunde Harremanetako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuaren argitalpenen politikari buruz jarraian azalduko diren helburuetan (beste hainbatetan aipaturiko helburu berak) egokitzapen nabarmenak egin behar izan dira, bi faktore berrien ondorioz.

Batetik, egoera ekonomiko orokorraren ondorioz eta, bereziki, Administrazioaren egoeraren ondorioz, gastuaren kontrol zorrotza eskatzen baitu. Horren eraginez, nabarmen jaitsi da argitalpenen edizioaren gastua, azken lau urteetan. Eta, jakina, jaitziera horrek bultzatuta nabarmen egin du behera argitaratutako lanen kopuruak ere; kasu askotan, lanak argitara eman arren, askoz ere tira da txikiagoak egin dira, eta kalitate apalagoak.

Bestalde, argitalpenen politikan gero eta eragin nabariagoa dute sektorean gertatzen ari diren goitik beherako aldaketa teknologikoak. Euskarri berriak agertu dira, hedapen-molde eta irakurtzeko era berriak, eta papereko argitalpenek gero eta ahalmen txikiagoa dute mundu osoan. Berezi,

Internet bidezko zabalkundeak eta orotariko pantailetan irakurtzeko ohituraren zabalkundeak, alegia, papereko edizioak gero eta jende gutxiagok irakurtzeak, guztiz aldarazi dute argitalpenen edizioaren egoera. Administrazioan, gero eta dokumentu gehiago hedatzen dira webgunearen bidez soilik, eta gastuaren kontrol handia ahalbidetzen du horrek. Eta, orain, edozein argitalpen ekoizten hasi aurretik, ongi aztertzen da argitalpen bakoitza zer euskarritan zabalduko den.

Edonola ere, hauek dira argitalpen-politikaren helburuak:

- Nafarroako Foru Komunitateko administrazioak berak bideratu eta departamentuen aburuz biztanleriaren sektore batentzat garrantzi berezikoak diren zenbait ekintza askotariko euskarrien bidez hedatzea (inprimatuta, ikus-entzunezkoen bidez, formatu digitalean).

- Foru-administrazioak hainbat arlotan onartutako planak edo arau ofizialak zabaltzea: hainbat hezkuntza-etapatako curriculum ofizialak, hezkuntza-sistemako maila edo ikasturte jakin batzuetako ezagutzen proba orokorrak, eta beste arlo batzuei buruzko nahitaez bete beharreko legedia, hala nola, ogasunekoa, ingurumenekoa, etab.

- Nafarroaren errealitate naturala ezagutzera ematea, bereziki, kanpo-sustapenari begira.

- Liburu eta aldizkako argitalpenen bidez ezagutzera ematea Nafarroaren errealitate historikoa-ren eta gaur egungoren askotariko alderdiei buruzko ikerketak eta azterlanak, hala nola, arteari, arkitekturari, historiari, literaturari, ekonomiari, etnografiari eta abarri buruzkoak.

Jarraian emango diren datuak Argitalpenen Sailaren lan-artxiboan agertzen dira; horixe da, hain zuzen ere, foru-administrazioeko edozein departamenturen argitalpenak (eta, gero, horien biltegiatzea eta banaketa) ikuskatzen dituen saila.



DEPARTAMENTUA	Argitalpenak	Gastua (€)
Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia	1	23.400,03
Osasun Publikoaren Institutua	1	4.224,40
Kultura Ekintzako Zerbitzua	1	1.345,20
	3	28.969,63
Hezkuntza	53	61.195,92
	2	11.742,18
Creena	3	5.272,12
Hezkuntza	16	9.139,44
Euskarabidea	7	
Baliabide Didaktikoen Bulegoa	1	224,20
Ebaluazio Saila	2	777,62
Hezkuntza Berrikuntzako Saila	9	10.790,25
Hezkuntza Berrikuntzako Saila	7	7.911,07
Hezkuntza Ikuskaritzako Saila	1	2.535,00
Lanbide Heziketako Zerbitzua	2	9.682,00
Eskolako Hizkuntza Plangintzako Zerbitzua	3	3.122,04
Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaiak	29	20.563,70
Nafarroako Gazteriaren Institutua	23	11.195,24
Nafarroako Kirolaren Institutua	4	6.752,46
Nafarroako Berdintasunerako Institutua	1	2.439,00
Kontsumo Zerbitzua	1	177,00
Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismoa	115	218.488,97
Kulturako Zuzendaritza Nagusia	19	21.096,48
Vianako Printzea Erakundea	1	15.000,00
Ikus-entzunezko Arteen eta Zinemaren Nafarroako Institutua	2	8.610,00
Nafarroako Museoa	3	4.826,75
Vianako Printzea	8	28.710,29
Sustapen, argitalpen eta teknologia berrien saila	2	22.502,28
Kultura Ekintzako Zerbitzua	31	9.846,61
Liburutegien Zerbitzua	3	888,54
Turismo Marketingeko Zerbitzua	4	
Museoen Zerbitzua	8	6.231,13
Turismo Zerbitzua	32	97.950,07
Turismo Zerbitzua	2	2.826,82
Kultura, Turismoa eta Erakunde Harremanak	29	84.315,01
Kulturako Zuzendaritza Nagusia	3	20.449,48
Nafarroako Museoa	1	229,99
Karlismoaren Museoa	1	
Protokolo Saila	1	873,20
Kultura Ekintzako Zerbitzua	3	3.124,52
Turismo Marketingaren eta Turismo Produktuen Zerbitzua	17	40.560,62
Museoen Zerbitzua	1	396,00
Turismo Zerbitzua	2	18.681,20
Landa Garapena eta Ingurumena	4	
Nekazaritza Azpiegituren Zerbitzua	4	
Landa Garapena, Industria, Enplegua eta Ingurumena	1	3.619,41
Telekomunikazioen eta Informazioaren Segurtasunaren Zerbitzua	1	3.619,41

Ekonomia eta Ogasuna	20	53.734,04
Ekonomia eta Ogasun Kabinetea	4	13.433,00
Araudi eta Zerga Garapeneko Zerbitzua	6	25.666,11
Ikuskaritza Zerbitzu Nagusia	1	1.510,40
Aurrekontu eta Finantza Politikako Zerbitzua	2	7.155,58
Aurrekontu eta Diruzaintzako Zerbitzua	7	5.968,95
Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lana	1	261,35
Nafarroako Enplegu Zerbitzua	1	261,35
Berrikuntza, Enpresa eta Enplegua	10	17.971,80
Berrikuntzaren eta Informazio Gizartearen Zerbitzua	10	17.971,80
Beste batzuk	2	1.198,88
Ekolur	1	
Nafarroako Osasun Zerbitzua	1	1.198,88
Herri Lanak, Garraioak eta Komunikazioak	2	15.703,00
Proiektu, Burdinbide eta Lanen Zerbitzua	2	15.703,00
Hidraulikoak		
Gizarte Politika, Berdintasuna, Kirola eta Gazteria	10	6.311,80
Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua	6	5.692,32
(CEIMD)		
Nafarroako Gazteriaren Institutua	1	0,48
Nafarroako Kirolaren Institutua	1	295,00
Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua	2	324,00
Lehendakaritza, Administrazio Publikoak eta Barne Departamentua	1	229,85
Administrazio Publikoko Nafarroako Institutua	1	229,85
Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentua	10	21.845,65
	1	73,63
Aholkularitza Juridikoa	1	1.921,92
Administrazio Publikoko Nafarroako Institutua	6	19.429,05
Zirkulazio eta Bide Segurtasuneko Saila	1	249,40
Segurtasun Politiken Garapenerako Zerbitzua	1	171,65
Erakunde Harremanak eta Bozeramailea	23	158.124,09
	1	6.338,18
Erakunde Harremanen eta Bozeramailearen Zuzendaritza Nagusia	4	17.854,98
Etorकिन Arretarako Bulegoa	1	607,70
Argitalpen Zerbitzua	8	40.138,33
Protokolo eta Argitalpen Zerbitzua	5	67.956,76
Nafarroako Proiektzio eta Argitalpen Zerbitzua	4	25.228,14
Osasuna	48	37.048,86
Osasun Publikoaren Institutua	1	
Osasun Publikoaren Institutua	26	10.368,32
Nafarroako Lan Osasunaren Institutua	9	6.967,62
Irakaskuntza Pabiloia	1	964,33
Droga-mendekotasunaren Foru Plana	1	1.395,15
Ikerketa Biomedikoaren Atala	1	1.916,80
Irakaskuntza, Ikerketa eta Garapen Zerbitzua	3	5.038,80
Nafarroako Osasun Zerbitzua	6	10.397,84
GUZTIRA	361	729.581,96 €

Datuak falta diren kasu batzuetan, Administrazioaren departamentu bakoitzak erabaki dezakeelako zer argitaratu eta aurrekontu propioko zer partidarekin ordaindu, eta, halakoetan, Argitalpenen Atalarekin aritu gabe bere kabuz has dezakeelako ekoizpena (nahiz eta amaieran atal horrengana jo behar izan). Horregatik, argitalpen batzuen ekoizpenaren hasierako gastu horiek ezin izan dira Argitalpen Atalaren barruan sartu.

#### ARGITALPEN ATALAK EDIZIOAREN ARLOAN GAUZATUTAKO JARDUERA TEKNIKOAREN LABURPENA

Beheko zerrendan, unitate argitaratzailea errepikatu arren, errespetatu egin da bereizketa, unitate argitaratzaile bakoitzean argitalpen guztien ardura ez baitu beti pertsona berak izaten, edo argitalpenaren ezaugarriak direla-eta, unitate berraren argitalpena izan arren, oso izaera desberdineko argitalpenak direlako.

2011. urtea

2011n, Foru Komunitateko Administrazioak honako argitalpen hauek eman zituen argitara (bereizi egin dira, monografiak eta aldizkariak ez ezik, baita beste mota batzuetako argitalpenak ere):

Liburuak: 69

Aldizkariak: 18

Esku-orriak: 146

Ikus-entzunezkoak: 10

Bestelakoak (kartelak, zabalgarriak, etab.): 118

Zaila da batez besteko tirada zenbatekoa izan den zehaztea. Baina argitalpen mota horien arteko bereizketa kontuan hartuta, zehaztapen hau egin daiteke:

Liburuak: 500 ale

Aldizkariak: 400 ale

Esku-orriak: 700 ale

Ikus-entzunezkoak: 200 ale

Bestelakoak: Kartelen batez besteko tirada 150 alekoa izaten da, eta zabalgarriena, 700ekoa.

Banaketari dagokionez, honako bi argitalpen mota hauen arteko bereizketa egin ohi da:

- Salmentarako ez diren argitalpenak. Argitalpen Sailak dagokion departamentuari ematen dizkion liburu, esku-orri edo kartelak dira, departamentuak egokien irizten dion moduan bana ditzan interesa duen publikoaren artean (biztanleriaren sektore jakin bat edo, ohiz kanpo, Administrazio beste unitate batzuk). Argitalpen Sailak legeak ezarritako aleak Lege Gordailuaren Unitateari emateko ardura besterik ez du.

- Salmentarako argitalpenak. Argitalpen hauei prezio bat ezartzen zaie, eta honako hauetan jarritzen dira salgai:

1.- Gobernuaren beraren erakunde liburu-dendan (Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa, Navas de Tolosa, 21). Liburu-denda horretan, herritarrek eskuragarri dute Nafarroako Gobernuaren argitalpen-funts osoa, berrogeita hamar urtetik gorako argitalpen-jardueran osatua.

2.- Gainerako liburu-dendetan. Interesa duen edozein herritarrek izan dezan Gobernuak argitaratutako lanak edozein liburu-dendatan eskuratze-ko aukera, hitzarmenak edo akordioak egiten dira banatzaileekin, liburuak eta aldizkariak salmentaguneetara banatzeko. Lehenatasunezko banatzaile bat dago Nafarroan, Euskadin, Errioxan eta Aragoi (egin beharreko lehiaketa publikoa eta kontratua eginda), eta banaketa espezializatua dago Madrilgo liburu-denda jakin batzuetara.

Kontratututako banatzaileak Espainiako beste edozein tokitako liburu-denden eskari esanguratsuei ere erantzuten die.

3.- Jasotzean ordaintzeko banaketa: Kontratututako banatzailearen lankidetzarekin, jasotakoan ordaintzeko igorpenak ere egiten dira, argitalpenen webgunearen bitartez egindako eskariak banatzeko, eta, oro har, beste herrialde batzuetatik iristen diren eskariak banatzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2012ko urrian

Bigarren lehendakariorde, bozeramaile eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, “Tokiko telebistako Iruñeko barrutia” izenekoak hartzen duen lurralde-eremuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Patxi Leuza García jaunak galdera egin du “Tokiko telebistako Iruñeko barrutia” izenekoak hartzen duen lurralde-eremuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2012ko irailaren 11ko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2012ko urriaren 3an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak Iruñeko telebistaren hedadurari buruz idatziz erantzuteko egindako galderari dagokionez (PES-00121) hau erantzun du Nafarroako Gobernuo Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Iruñeko tokiko telebistaren lurralde-esparruaren mugak Nafarroako Foru Komunitatean tokiko lurreko telebista digitaleko zerbitzua emateko lizentziak banatzeko lehiaketa publikoaren I. eranskinean agertzen dira; deialdi horri erreferentzia egiten dio parlamentariak, eta abuztuaren 20ko 163. NAO on argitaratu zen.

Eskatutako informazioa eskuragarri dago Aldizkarian ([http://www.navarra.es/home\\_es/Actualidad/BON/Boletines/2012/163/Anuncio-1/](http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/BON/Boletines/2012/163/Anuncio-1/)), eta honako hau dio:

Erreferentzia: TL02NA

Izena: IRUÑEA

Kanal anizkoitza: 38

Anizkoitz bakoitzeko zenbat telebista-kate: lau

Gehieneko erradiatutako ageriko potentzia: 2 kW

Eremua: Pamplona/Iruñea, Barañain, Burlada/Burlata, Zizur Mayor/Zizur Nagusia, Villava/Atarrabia, Antsoain, Berriozar, Aranguren, Noáin (Valle de Elorz)/Noain (Elortzibar), Egüés, Huarte/Uharte eta Beriain.

Azalera osoa: 190,72 km<sup>2</sup> Biztanle dentsitatea: 1.597 biztanle/km<sup>2</sup>

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Bigarren lehendakariorde, bozeramaile eta Kultura, Turismo eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia